

ZUMAYA-KO EUSKAL-FĒSTAK



EUSKAL-ITZ-JOSTALDIEN EGINTZA

Donostiyako Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Zumayara, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa izan dan, aurten, izkribatzalle eta musikarieren indar-neurtzetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiarekiñ esamiñatu ondorean aurkeztu diran mol-daera guziak, zeñen agiria egiten dan urteoroko Oroimengarriyan, irabazi dituzte SARIYAK, izkribatzalleen artean: On Ignazio Belaustegi, On José Artola, On Elías Gorostidi eta On Biktoriano Iraola-k, *Zumaya-ko erri eta bere seme gogoanyarrien kondaira, Umezurtza, Amoriyoa eta interesa eta Erreyietako feriya* izendatzen diranagatik, azkenekoak, indar-neurtzaz kanpora, «Bitezar onragarria» eramanik. Irabazi dituzte ALDEERAK On Kayetano Sanchez Irure eta On Marzelino Soroa-k, *Aiton bat eta ni eta ¡Ona arraya jaunaak!* izentzat dituztenegatik. Irabazi du AIPAMEN ONRAGARRI BAT On Juan Ignazio Uranga-k *Manu* izendatzen danagatik.

Musikarieren artean irabazi dituzte SARIYAK: On Balentín Larrera eta Iturbe, On Ildefonso Lizarriturri eta On Kándido Buenechea-k, lenbizikoak *Eresiak* azalkaitzat duen Euskal-kanta mol-daeragatik; bigarrenak *Nere maitea* izentzat duen zortzikoagatik; eta irugarrenak, indar-neurtzaz kanpora, eraman du «Bitezar onragarria» *Euskal-erriko chistulariyari* izendatzen dan zortzikoagatik.

Zumayan, 1900-eko Agorraren 24-ean.

Batzarrearen izenean:

Dianagusia,
ALFREDO DE LAFFITTE.

Goarpelaria,
ANTONIO ARZÁC.

Aditzera.— Irakurtzalleen artean *sariya* irabazi du Ona Juana Andoriegi-k eta *aldeera* On Domingo Andonegi-k.

